

BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

3558

EBAZPENA, 2015eko abuztuaren 3koa, HABEren zuzendari nagusiarena, Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Curriculumaren mailen azpimailak zedarritu eta ikas-irakas prozesuen eraketa, jarraipena eta kudeaketa didaktikoaren jarraibideak ezartzen dituena.

Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Curriculumama onartzen duen Aginduak, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuaren 2015eko uztailaren 22koak, dio Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Curriculumaren sei gaitasun-mailak eskuratzeko ibilbide didaktikoan azpimailak bereiziko direla, hizkuntza-trebetasun hartzaile eta ekoizleetan ikasleek dituzten gaitasunetan oinarrituta (3.2 artikulua). Eta gaineratzen du azpimaila horiek HABEren zuzendari nagusiaren ebazpenez ezarriko direla, azpimaila bakoitzaren helburuak adierazita.

Izan ere, beharrezkoa da Curriculumean ezarritako mailak azpimailatan zedarritzea:

a) HEOCaren mailak ezartzeko emandako irizpideen egituraren barnean, ikasle bakoitzaren hizkuntza-gaitasunaren garapena egoki eta zehatzago eman eta jarraitu ahal izateko, betiere maila bakoitzari jarritako helburuak lortzeari begira, eta batez ere, idatzizko eta ahozko adierazpena erdiesteari lehentasuna emateko.

b) Ikasleen beharrak eta premiak kontuan izanik, 2015eko uztailaren 22ko Aginduaren 6. artikuluan berezitako ikastereduen baitan, ikas-irakas prozesuaren kudeaketa didaktiko egokia eratu eta burutu ahal izateko.

c) HABE eta euskaltegi eta autoikaskuntzarako zentroen arteko elkarreragina ahalbidetzeko, ikas-irakas prozesuaren ebaluazioa eta egiaztatze gintzaren egitura informatikoa doitzuz.

Horregatik,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Curriculumean zedarritutako sei gaitasun-mailen ikas-irakas prozesua egituratzeko ondoren definitzen diren azpimailak bereiztea, hizkuntza-trebetasunen arabera egituratuak eta Ebazpen honen eranskinera biltzen diren oinarrien, edukien eta jarraibideen arabera zehaztuak.

HEOCaren maila	Azpimailak	Azpimailen egitura
A1	A1	A1A1
A2	A2.1	A2A1
	A2.2	A2A2
B1	B1.1	B1A2
	B1.2	B1B1
B2	B2.1	B2B1
	B2.2	B2B2
C1	C1.1	C1B2
	C1.2	C1C1
C2	C2.1	C2C1
	C2.2	C2C2

Bigarrena.– Administrazio-bidea agortzen ez duen Ebazpen honen aurka egiteko, gora jotzeko errekurtoa jar daiteke Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren aurrean, Ebazpen hau argitaratu eta biharamunetik hasita hilabeteko epe barruan.

Donostia, 2015eko abuztuaren 3a.

HABEren zuzendari nagusia,
JOSEBA ERKIZIA ITOITZ.

ERANSKINA**1.- Oinarriak eta definizioak.**

- 1.1. Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Curriculumean zedarritutako sei gaitasun-mailen ikas-irakas prozesua egituratzeko bereizten dira azpimailak, HEOCean emandako irizpide pedagogiko-didaktikoei eta ikasprozesuaren antolaketa-beharrei egoki eta zuzen erantzuteko.
- 1.2. Hortaz, HEOCak berak zehazten dituen hizkuntza-trebetasunetan oinarritzen dira azpimailak, eta trebetasun hartzaileak eta ekoizleak integratzen dituzte. Ikastaroen ezaugarrien eta ikas-baldintzen arabera, azpimaila horiek lortu beharreko helburuen adierazle izango dira.
- 1.3. Azpimailok helduen euskalduntzearen jarraipen eta kudeaketa didaktikoa eratu eta burutzeko, eragiketa-unitate izango dira.

2. Azpimailen deskribapena

	Trebetasun hartzaileak		Trebetasun sortzaileak	
	Entzumena	Irakurmena	Mintzamena	Idazmena
A1	Eguneroko harremanetan, gai izango da ahozko testu laburren gaia eta komunikazio-asmoa identifikatzeko, aurrez aurreko elkarrizketetan hitzak eta esapideak ulertzeko nahiz edukiari buruzko hipotesiak egiteko, baldin eta solaskideak argi eta oso mantso hitz egiten badio erregistro estandarrean. Era berean, berehalako premiei lotutako galderak, argibideak eta oharrak ulertuko ditu, betiere etenaldi, keinu eta irudiz laguntzen badira.	Gai izango da eguneroko harremanetan sarri erabiltzen diren testu laburretako gaia eta komunikazio-asmoa identifikatzeko, hitz eta esapide sinpleak ulertzeko eta aurreikus daitekeen informazio zehatza antzemateko; horretarako, testuen (mezu labur, ohar sinple, zerrenda eta kartelen) testuingurua eta irudiak baliatuko ditu.	Aurrez aurreko elkarreraginean gai izango da eguneroko bere oinarrizko behar komunikatiboei erantzuteko, parte-hartze laburrak, baina egokiak eta ulergarriak egiteko. Horretarako, hitzak eta oinarrizko esapideak baliatuko ditu, baita etenak, keinuak eta birformulazioak ere.	Gai izango da mezu eta testu laburrak idazteko (zerrendak, inprimakiak, ohar laburrak, postalak), testuingurura egokituz eta ereduak oso hurbiletik jarraituz; baliabideen kontrola oso mugatua izango du.
A2.1	Eguneroko egoera ezagunetan, maila bereko solaskideen arteko elkarrizketak eta jarraibideak ulertzeko gai izango da, baita gai ezagunei buruzko azalpenak ulertzeko ere (familia, erosketak, bizitokia, lanbidea, eguraldia...), baldin eta informazioa zuzena, argia eta poliki ahoskatua bada.	Eguneroko bizitzarekin lotutako testu labur eta errazetan gai izango da, egoera, testuinguru, formatu eta ezagutza orokorrean oinarrituz, komunikazio-asmoa, gaia, ideia nagusiak eta xehetasun adierazgarriak atzemateko. Gai izango da edukiari buruzko hipotesiak eratzeko eta aurreikus daitezkeen zehaztasunak baieztatzeko; horretarako, zenbaitetan, irudiak lagungarri izango zaizkio.	Aurrez aurreko elkarreraginean gai izango da eguneroko bere oinarrizko behar komunikatiboei erantzuteko, parte-hartze laburrak, baina egokiak eta ulergarriak egiteko. Horretarako, hitzak eta oinarrizko esapideak baliatuko ditu, baita etenak, keinuak eta birformulazioak ere.	Gai izango da mezu eta testu laburrak idazteko (zerrendak, inprimakiak, ohar laburrak, postalak), testuingurura egokituz eta ereduak oso hurbiletik jarraituz; baliabideen kontrola oso mugatua izango du.
A2.2	Eguneroko egoera ezagunetan, maila bereko solaskideen arteko	Eguneroko bizitzarekin lotutako testu labur eta errazetan gai izango da, egoera, testuinguru,	Egoera ezagunetan, kideekin (lagun, senide eta abarrekin) elkarreraginean, gai izango	Lagunei, senideei, ikaskideei edo lankideei ohar eta mezu laburrak

	<p>elkarrizketak eta jarraibideak ulertzeko gai izango da, baita gai ezagunei buruzko azalpenak ulertzeko ere (familia, erosketak, bizitokia, lanbidea, eguraldia...), baldin eta informazioa zuzena, argia eta poliki ahoskatua bada.</p>	<p>formatu eta ezagutza orokorrean oinarrituz, komunikazio-asmoa, gaia, ideia nagusiak eta xehetasun adierazgarriak atzemateko. Gai izango da edukiari buruzko hipotesiak eratzeko eta aurreikus daitezkeen zehaztasunak baieztatzeko; horretarako, zenbaitetan, irudiak lagungarri izango zaizkio.</p>	<p>da informazio-truke erraz eta arruntetan moldatzeko, gauzen eta pertsonen deskribapenak egiteko, eta ekintza eta egitarauai buruzko azalpen errazak eta iritziak emateko.</p>	<p>nahiz postalak, izandako esperientzien kontakizun laburrak eta pertsonen deskribapenak idazteko gai izango da, betiere emandako ereduai jarraiki.</p>
B1.1	<p>Testuinguru ezagunetan (eskola, aisia, lana...) eta erregistro estandarrean egindako gertaeren kontaketak, azalpenak, deskribapenak, instrukzioak eta elkarrizketak ulertzeko gai izango da, gaiak orokorrak direnean eta xedea informazioa trukatzea denean. Horrez gain, komunikazio-asmoa atzemango du, ideia nagusiak jasoko ditu eta zenbait testuingurutan baita ñabardurak ere (zaratarik eza, abiadura normala, ahoskera garbia, erreduantzia, ikusizko lagungarriak...), betiere azalpenen bat izateko aukera badu.</p>	<p>Ongi egituratutako testu argietan (kronikak, artikulua laburrak, deskribapenak eta argibideak), gai izango da komunikazio-asmoa, gaia, ideia nagusiak, xehetasun adierazgarrienak, diskurtsoaren haria eta ondorioak atzemateko eta ulertzeko, betiere gaiak orokorrak eta ohikoak badira.</p>	<p>Egoera ezagunetan, kideekin (lagun, senide eta abarrekin) elkarreraginean, gai izango da informazio-truke erraz eta arruntetan moldatzeko, gauzen eta pertsonen deskribapenak egiteko, eta ekintza eta egitarauai buruzko azalpen errazak eta iritziak emateko.</p>	<p>Lagunei, senideei, ikaskideei edo lankideei ohar eta mezu laburrak nahiz postalak, izandako esperientzien kontakizun laburrak eta pertsonen deskribapenak idazteko gai izango da, betiere emandako ereduai jarraiki.</p>
B1.2	<p>Testuinguru ezagunetan (eskola, aisia, lana...) eta erregistro estandarrean egindako gertaeren kontaketak, azalpenak, deskribapenak, instrukzioak eta elkarrizketak ulertzeko gai izango da, gaiak orokorrak direnean eta xedea informazioa trukatzea denean. Horrez gain, komunikazio-asmoa atzemango du, ideia nagusiak jasoko ditu eta zenbait testuingurutan baita ñabardurak ere (zaratarik eza, abiadura normala, ahoskera garbia, erreduantzia, ikusizko lagungarriak...), betiere azalpenen bat izateko aukera badu.</p>	<p>Ongi egituratutako testu argietan (kronikak, artikulua laburrak, deskribapenak eta argibideak), gai izango da komunikazio-asmoa, gaia, ideia nagusiak, xehetasun adierazgarrienak, diskurtsoaren haria eta ondorioak atzemateko eta ulertzeko, betiere gaiak orokorrak eta ohikoak badira.</p>	<p>Maila bereko solaskideekin elkarrizketak izateko gai da, betiere egoera ezaguna eta gaia orokorra eta arrunta denean, xedea izanik gai konkretu edota abstraktuei buruz informazioa trukatzea. Era berean, gai da instrukzioak emateko, pertsonak eta objektuak labur deskribatzeko, gertaeren eta bizipenen kontaketa laburrak egiteko eta bere iritzia labur baina eraginkor adierazteko.</p>	<p>Eguneroko testuinguru ezagunetan esperientziak deskribatzeko, gertaerak kontatzeko eta azalpenak emateko gai izango da, baldin eta gaia orokorra eta arrunta bada.</p>
B2.1	<p>Aurrez aurre nahiz komunikabideetan, hizkera estandarrean</p>	<p>Ohiko harremanen esparruan testu gehienak ulertzeko gai izango da, eta ideia nagusiak eta</p>	<p>Maila bereko solaskideekin elkarrizketak izateko gai da, betiere egoera ezaguna eta</p>	<p>Eguneroko testuinguru ezagunetan esperientziak deskribatzeko, gertaerak</p>

	egindako elkarrizketak, azalpenak eta abar ulertzeko gai izango da, batez ere gizarte-harremanen esparrukoak badira. Halaber, gai konplexuetako ideia nagusiak ulertuko ditu, baina zailtasuna izan dezake egitura konplexuekin eta hizkuntzaren esamolde jatorrak erabiltzen direnean.	bigarren mailakoak bereiziko ditu. Hiztegi zabala izango du, eta xehetasun asko ulertuko ditu, zailtasuna izan badezake ere hainbat esamolde eta ñabardurarekin. Igorlearen sentimendu eta jarrerak atzemateko gai izango da.	gaia orokorra eta arrunta denean, xedea izanik gai konkretu edota abstraktuei buruz informazioa trukatzeko. Era berean, gai da instrukzioak emateko, pertsonak eta objektuak labur deskribatzeko, gertaeren eta bizipenen kontaketa laburrak egiteko eta bere iritzia labur baina eraginkor adierazteko.	kontatzeko eta azalpenak emateko gai izango da, baldin eta gaia orokorra eta arrunta bada.
B2.2	Aurrez aurre nahiz komunikabideetan, hizkera estandarrean egindako elkarrizketak, azalpenak eta abar ulertzeko gai izango da, batez ere gizarte-harremanen esparrukoak badira. Halaber, gai konplexuetako ideia nagusiak ulertuko ditu, baina zailtasuna izan dezake egitura konplexuekin eta hizkuntzaren esamolde jatorrak erabiltzen direnean.	Ohiko harremanen esparruan testu gehienak ulertzeko gai izango da, eta ideia nagusiak eta bigarren mailakoak bereiziko ditu. Hiztegi zabala izango du, eta xehetasun asko ulertuko ditu, zailtasuna izan badezake ere hainbat esamolde eta ñabardurarekin. Igorlearen sentimendu eta jarrerak atzemateko gai izango da.	Lagunarteko elkarreragin arruntean jariatutasunez aritzeko gai izango da, besteak jakinaren gainean jarriz, iritzia eskatuz, bere ikuspegia defendatuz eta abar. Eraginkortasunez komunikatuko da, eta ohiko gai eta egoera ezagunetan adierazpen argiak egingo ditu. Bere lan-esparruko hainbat gairi buruzko deskribapenak eta azalpenak ere emango ditu, alderdi esanguratsuak eta xehetasunak bereiziz.	Bere arloko gaiei buruzko testu argi eta ongi egituratuak idazteko gai izango da, baita hainbat iturritako informazioa erabiltzeko eta bere iritzia emateko ere, aldeko eta kontrako argudioak argi adieraziz.
C1.1	Lagunarteko, lan-esparruko eta komunikabideetako elkarrizketak, eztabaidak, azalpenak eta abar ulertzeko gai izango da, baita inguruko herri-hizkeran sortutako asko ere. Informazio orokorra eta xehea jasoko du, gai espezializatuetan izan ezik.	Testu luze eta konplexuak ulertzeko gai izango da, baldin eta gai orokorrekoak badira. Halaber, artikulua espezializatu eta argibide tekniko luzeak ulertuko ditu, baina hauek bere arlokoak ez badira, lexikoa traba izan daiteke zerbaitetan. Gertaeretan oinarritutako testuak edo literatur testu arruntak ere ulertuko ditu, eta erregistro ezberdinak bereizteko gai izango da.	Lagunarteko elkarreragin arruntean jariatutasunez aritzeko gai izango da, besteak jakinaren gainean jarriz, iritzia eskatuz, bere ikuspegia defendatuz eta abar. Eraginkortasunez komunikatuko da, eta ohiko gai eta egoera ezagunetan adierazpen argiak egingo ditu. Bere lan-esparruko hainbat gairi buruzko deskribapenak eta azalpenak ere emango ditu, alderdi esanguratsuak eta xehetasunak bereiziz.	Bere arloko gaiei buruzko testu argi eta ongi egituratuak idazteko gai izango da, baita hainbat iturritako informazioa erabiltzeko eta bere iritzia emateko ere, aldeko eta kontrako argudioak argi adieraziz.
C1.2	Lagunarteko, lan-esparruko eta komunikabideetako elkarrizketak, eztabaidak, azalpenak eta abar ulertzeko gai izango da, baita inguruko herri-hizkeran sortutako asko ere. Informazio orokorra eta xehea jasoko du, gai espezializatuetan izan ezik.	Testu luze eta konplexuak ulertzeko gai izango da, baldin eta gai orokorrekoak badira. Halaber, artikulua espezializatu eta argibide tekniko luzeak ulertuko ditu, baina hauek bere arlokoak ez badira, lexikoa traba izan daiteke zerbaitetan. Gertaeretan oinarritutako testuak edo literatur testu arruntak ere ulertuko ditu, eta erregistro ezberdinak bereizteko gai izango da.	Lagunarteko elkarreraginean jariatutasunez eta zehatz jarduteko gai izango da, eta, era berean, lan-esparruan eta komunikabideetan ideiak eta iritzia zehaztasunez eta eraginkortasunez adierazteko.	Ongi egituratutako testu argi eta zehatzak idazteko gai izango da, ideia nagusiak eta osagarriak nabarmenduz. Era berean, bere ikuspuntua luze eta zabal adierazteko gai izango da, xehetasunak eta adibide egokiak emanez.

C2.1	Euskara batuan norbere espezialitateko nahiz gai orokorreko testuak ulertzeko gai izango da, bai aurrez aurre, baita hedabideetan entzundakoa ere. Euskalkietako berbaldia ere ulertuko du, zenbaitetan xehetasunak jasotzeko eragozpena badu ere.	Euskara batuan zein tokian tokiko euskalkian idatziriko kultura maila goreneko testuek eta bere arloko testu espezializatuek emandako informazioa jasotzeko gai izango da. Halaber, estilo desberdinen ñabardurez eta esanahi implizitu nahiz esplizituez jabetuko da.	Lagunarteko elkarreraginean jarotasunez eta zehatz jarduteko gai izango da, eta, era berean, lan-esparruan eta komunikabideetan ideiak eta iritziak zehaztasunez eta eraginkortasunez adierazteko.	Ongi egituratutako testu argi eta zehatzak idazteko gai izango da, ideia nagusiak eta osagarriak nabarmenduz. Era berean, bere ikuspuntua luze eta zabal adierazteko gai izango da, xehetasunak eta adibide egokiak emanez.
C2.2	Euskara batuan norbere espezialitateko nahiz gai orokorreko testuak ulertzeko gai izango da, bai aurrez aurre, baita hedabideetan entzundakoa ere. Euskalkietako berbaldia ere ulertuko du, zenbaitetan xehetasunak jasotzeko eragozpena badu ere.	Euskara batuan zein tokian tokiko euskalkian idatziriko kultura maila goreneko testuek eta bere arloko testu espezializatuek emandako informazioa jasotzeko gai izango da. Halaber, estilo desberdinen ñabardurez eta esanahi implizitu nahiz esplizituez jabetuko da.	Edozein egoera eta esparrutan, norbere espezialitateko nahiz alor orokorreko ezagutzen inguruan, gai izango da elkarrizketa batean parte hartzeko, iritziak eta azalpenak emanez eta eztabaidatuz. Era berean, gai izango da hitzaldiak eman eta mahai-inguru eta abarretan parte hartzeko.	Era guztietako testuak zuzen, zehatz eta jator idazteko gai izango da, kultura maila orokorreko nahiz goragoko gai sozialei edo norberaren espezialitatekoari buruz, hizkuntza formalean nahiz informalean arrakastaz eta egoerari egokitzuz.

3. Ikas-irakas prozesuaren eraketa, jarraipena eta kudeaketa didaktikoa

HABEk azpimaila horien ezaugarrien arabera egituratuko du Helduen Euskalduntze-sistemaren eraketa, jarraipena eta kudeaketa didaktikoa, ikas-irakas prozesuen kalitatea hobetzeko, gidalerroak ezartzeko eta curriculumaren beraren emankortasuna eta gardentasuna areagotzeko.

4. Ikaslearen mailaketa eta ebaluazioa

4.1. Ikastaro hasierako mailaketa.

Matrikulaldi bakoitzean, trebetasunetan oinarritutako ebaluazioa egingo dio euskaltegiak edo autoikaskuntzarako zentroak ikasleari, Euskaltegiaren Curriculum Proiektuan (ECP) ezarritako prozedurei eta HEOCean zehaztutako ebaluazio-irizpideei erreparatuz. Diagnosi hori baliatuko du euskaltegiak edo autoikaskuntzarako zentroak ikaslea mailakatzeko eta ikas-irakas prozesuaren helburuak finkatzeko.

Ebaluazio diagnostikoa	Abiapuntua	Helburu-azpimaila
Irak Entz Idaz Mintz <input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>

Euskaltegiak edo autoikaskuntzarako zentroak, trebetasunez trebetasun balioetsiz, jasoko du ikaslearen komunikagaitasun-maila, eranskin honen 4.3 ataleko *“Ikasleak egindako ikastaroaren EBALUAZIO-TXOSTENA”* dokumentuan. Abiapuntua eta helburu-azpimaila bi multzotan bilduko dira: lehendabizikoan, trebetasun hartzaileetan aurreikusten zaion maila (irakurmena eta entzumena), eta bigarrengean, ekoizleetan aurreikusitakoa (idazmena eta mintzamena).

Egungo egoera soziolinguistikoaren ezaugarriak kontuan harturik —ikasleon trebetasun hartzaile eta ekoizleen arteko desoreka—, gerta daiteke, diagnosia egitean, aurreikusitako azpimailak egoera guztiak ez islatzea. Horrenbestez, abiapuntuari begira, baina ez helburu-azpimailari, honako egoera hauek ere aurreikusten dira (atzealdea ilunduta):

Abiapuntua	HEOC
A0A0	
A1A0	
A1A1	A1 maila
A2A1	
A2A2	A2 maila
B1A1	
B1A2	
B1B1	B1 maila
B2A2	
B2B1	
B2B2	B2 maila
C1B1	
C1B2	
C1C1	C1 maila
C2C1	
	C2 maila

4.2. Ikastaro bukaerako ebaluazioa.

Ikastaroaren amaieran, ikaslearen ebaluazio sumatiboa egingo du irakasleak. Euskaltegiaren edo autoikaskuntzarako zentroaren ECPan ezarritako prozedura eta HEOCean zehaztutako ebaluazio-irizpideen arabera, ikaslearen komunikagaitasuna balioetsiko du, eta *“Ikasleak egindako ikastaroaren EBALUAZIO-TXOSTENA”* dokumentuan jasoko du, trebetasunez trebetasun, euskara erabiltzeko ikasleak duen gaitasun-maila.

Ondoren, lau trebetasunetan izandako emaitzak, bi hartzaileetan eta bi ekoizleetan integraturik, eta egindako ikastaroaren ezaugarri eta baldintzen arabera, ikasleari iritsitako azpimaila zein izan den adieraziko zaio *“Ikasleak egindako ikastaroaren EBALUAZIO-TXOSTENA”* dokumentuaren bidez: ikastaroaren hasieran aurreikusitako helburu-azpimaila lortu badu, horrela aitortuko zaio; beste azpimailaren baten

gutxienekoak iritsi baditu, azpimaila hori; eta aurrerapen nahikorik izan ez badu, abiapuntuan jarraitzen duela adieraziko da. Bestalde, ikasprozesuan izandako aurrerapenaren berri emango zaio trebetasunez trebetasun, alderdi sendoak eta sendotu beharrekoak azpimarratuz. Horrela jaso geratuko da ikasleak eskura izango duen garaian garaiko aplikazio informatikoan.




Horretaz gain, ikasprozesuan zehar osatuz joango da eranskin honen 4.3 ataleko *“IKASTALDEAREN EBALUAZIO-FITXA”*, eta islatuko da ikasleek ikastaldean izandako ibilbidearen berri, aplikazio informatikoan garaian garaiko informazioa eskainiz.

Komunikagaitasuna neurtzeko ikasleek egindako proba guztiak bi urtez jasoko ditu euskaltegiak edo autoikaskuntzarako zentroak.





4.3. Fitxa-ereduak

2015eko abuztuaren 20a, osteguna











































Ikasleak egindako ikastaroaren EBALUAZIO-TXOSTENA

Ikasturtea 	Euskaltegi-kodea 	Izena <input type="text"/>	Taldea
			
Izena <input type="text"/>	NA/FIK <input type="text"/>		




HEOCaren araberako ikastaroa <input type="text"/>	Bestelako ikastaroa Ikastaro-mota <input type="text"/>	Helburua <input type="text"/>
Ikastaroaren hasiera-data <input type="text"/>	Eman orduak <input type="text"/>	Hartu orduak <input type="text"/>
		Ikasteredua <input type="text"/>
Irakaslea <input type="text"/>	Txostenaren data <input type="text"/>	

Ebaluazio diagnostikoa	Abiapuntua	Helburu-azpimaila
Irak  Entz  Idaz  Mintz 	<input type="text"/>	<input type="text"/>




Ikaslearen gaitasun komunikatiboaren balioespena HEOCaren mailaren irizpideekiko

Irakurmena	Entzumena
<p>1 2 3</p>     	<p>1 2 3</p>     
Idazmena	Mintzamena
<p>1 2 3</p> <p>Egokitasuna     </p> <p>Koherentzia     </p> <p>Kohesioa     </p> <p>Aberastasuna     </p>	<p>1 2 3</p> <p>Egokitasuna   </p> <p>Koherentzia/kohesioa   </p> <p>Jarriotasuna   </p> <p>Aberastasuna   </p>

2015eko abuztuaren 20a, osteguna

Zuzentasuna		Zuzentasuna	
Ikaslearen balioespen orokorra, ikastaro honetarako programak ezarritako helburuak kontuan harturik			Lortutako azpimaila
			<input type="text"/>

Ikaslearen aurrerapenari buruzko irakaslearen balioespena

Aurrerapenaren nolakoa	Nabarmena 	Neurrikoa 	Eskasa 
Alderdi sendoak			
Alderdi ahulak edo landu beharrekoak			
Ikaslearen euskara-maila hobetzeko proposamenak			
Oharrak			

ARGIBIDEAK

Ebaluazio diagnostikoaren funtzioa da, trebetasunez trebetasun, ikaslearen komunikagaitasun-maila finkatzea ikastaroa hasi aurretik, betiere, HEOCaren mailaketaren eta ebaluazio-irizpideen arabera.

Abiapuntua: Ebaluazio diagnostikoaren arabera, ikasleak ikasprozesuan izango duen abiapuntua.

Helburu-azpimaila: Ikaslearen abiapuntua kontuan hartuta, ikastaroaren ezaugarri eta baldintzen arabera, helburu izango duen azpimaila.

Lortutako azpimaila: Ikastaroen ezaugarri eta baldintzen arabera, ikasleak iritsitako azpimaila (aukerak: abiapuntua, ezer lortu ez badu; helburu-azpimaila, helburua lortu badu; tarteko azpimailaren bat, aurrerapenik bai baina helburua lortu gabe.)

Mailak
A1
A2
B1
B2
C1
C2

Ebaluazio diagnostikoa
Irak Entz Idaz Mintz



Abiapuntuak
A0A0
A1A0
A1A1
A2A1
A2A2
B1A1
B1A2
B1B1
B2A2
B2B1
B2B2
C1B1
C1B2
C1C1
C2C1

Helburu-azpimailak	
A1	(A1A1)
A2.1	(A2A1)
A2.2	(A2A2)
B1.1	(B1A2)
B1.2	(B1B1)
B2.1	(B2B1)
B2.2	(B2B2)
C1.1	(C1B2)
C1.2	(C1C1)
C2.1	(C2C1)
C2.2	(C2C2)

5. Baliabide informatikoak

HABEk behar diren egokitzapenak egingo ditu Q87 aplikazio informatikoan, HEOCak aurreikusten dituen hiru zehaztapen mailak (HABEren curriculum, euskaltegi edo zentroaren curriculum-proiektua eta ikasgelako programazioa) ahalik eta egokiera handienez osatzeko.